

## **4. maila**

### **Irakasleen gaikuntza: 2007 – 2008**

Hiru ikasturtetan (2005-2006, 2006-2007 eta 2007-2008an) euskalduntzearen 4. maila zenbait euskaltegitan saio moduan eskaini ondoren, HABEk erabakia du maila horren eskaintza orokortzea 2008-2009 ikasturtean, euskalduntze-alfabetatzearen behar, aukera eta baliabideen arabera. Horretarako, behar-beharrezkoa jotzen du, besteak beste eta batik bat, maila hori eman lezaketen irakasleak gaitzea bai hizkuntzaren eta bai didaktikaren aldetik.

Hain zuzen, gaikuntza horretarako HABEk zer asmo duen azaltzea da idatzi honen xedea. Ahalik eta zehatzen eta laburren egiten saiatuko naiz, hiru puntutan.

#### **1. Helburua: gaikuntza bikoitza**

Ekitaldi honen bidez, irakasleen bi gaitasun landu nahi ditugu: euskararena eta didaktikarena. Uste dugu, izan ere, 4. maila emango duen irakasleak ezinbestekoa duela izatea, batetik, maila hori bera gutxienez eta, bestetik, prestakuntza didaktikoa.

Dena den, euskalduntzearen 4. maila aitortua dute, dagoeneko, 4. hizkuntz eskakizuna edo baliokidea duten irakasleek.

#### **2. Ikastaroa**

Ikastaro bera eskaintzen diegu nola 4. maila aitortua duten irakasleei hala ez dutenei ere. Gaikuntza bikoitzaren egiaztapenean egingo dugu bereizketa, hurrengo puntuan –3.ean– ikusiko dugunez.

##### **2.1. Iraupena eta egutegia**

Lau atal izango ditu ikastaroak:

1. Aurrez aurreko mintegia, HABEren Donostiako egoitzan, 2007ko abenduaren 17tik 19ra (15 ordu).
2. Sei unitate didaktiko, gela birtualean (On Line) eta aurrez aurre, 2008ko urtarrilaren 7tik martxoaren 14ra (50 ordu\*).

1. UD, gela birtualean, urtarrilak 7-18 (10 ordu\*)
  2. UD, gela birtualean, urtarrilak 21 – otsailak 2 (10 ordu\*)
  3. UD, aurrez aurre, otsailaren 8an (5 ordu)
  4. UD, gela birtualean, otsailak 11-22 (10 ordu\*)
  5. UD, gela birtualean, otsailak 25 – martxoak 7 (10 ordu\*)
  6. UD, aurrez aurre, martxoaren 14an (5 ordu)
3. Proiektua, tutoretzaz lagunduta, martxoaren 31tik maiatzaren 30era.
  4. Ebaluazioa eta ebaluazio-irizpideak, aurrez aurreko mintegian, uztailaren 14tik 16ra (15 ordu).

\* Ordu-kopuru hauek orientagarriak dira.

## **2.2. Baldintzak**

Interneterako konexioa duen ordenagailua

### Software

Sistema eragilea: windows 95/98 edo berriagoa

Nabigatzailea (edozein)

Windows media player 5.0 edo Winamp

### Hardware

Pentium prozesadorea

256MB RAM

Pantaila 800x600 pixel

Soinu-txartela

CD irakurgailua

## **2.3. Izen-emateko epea, aukeraketa eta matrikula**

Aurtengo ekitaldi honetan, 24 irakasle gaitzeko eskaintza egiten dugu. Eskaria handiagoa balitz, aukeraketa egin beharko litzateke. Honela jokatzeari aurreikusten dugu, kontuan izanda abenduaren 5erako bidali beharko dutela partaideek lehen lana:

Izen-ematea

Azaroaren 19tik 23ra.

Partaideak aukeratzea

Azaroaren 26 eta 27.

Irizpide hauek erabiliko ditu HABEK, aukeraketa egin behar izanez gero: lurraldetasuna, sareen ordezkapena, euskaltegiaren proiektua eta euskaltegiaren kokalekua (4. mailarako ikasle-eskaria).

Matrikulatzeko epea

Azaroaren 28tik abenduaren 3ra.

Matrikula: 75 €.

### **3. Egiaztatze bikoitza**

Hasieran (1. puntuan) esan bezala, hizkuntz gaikuntza eta gaikuntza didaktikoa ditu helburu ekitaldiak, eta biak lantzeko aukera izango dute partaideek.

Hala ere, gaikuntza horiek egiaztatzeari begira –hau ere aurreratu dugu–, partaide guztiak ez daude egoera berean: denek egiaztatu beharko dute gaikuntza didaktikoa eta batzuek soilik (4. hizkuntz eskakizuna edo baliokidea ez dutenek) hizkuntz gaikuntza.

Gaikuntza didaktikoa egiaztatzeko, ikastaroa gainditzea eskatuko da; zehatzago:

- Unitate didaktikoen jardueretako %75a egin izana eta bakoitzean gutxienezkoa lortu izana.
- Aurrez aurreko saioretara eta mintegietara etorri izana.
- Proiektua epe barruan aurkeztu eta gutxienezkoa lortu izana.

Hizkuntz gaikuntzaren egiaztapena, berriz, berariazko ebazpenaz arautuko du HABEren zuzendari nagusiak, aurten (2007an) egin duen bezala; eta aurtengoaren ezaugarri berak izango ditu azterketak:

- Proba idatzia: ikastaroan egin beharreko proiektua.
- Ahozko proba (2008ko irailean edo urrian): proiektuan jorratutako gaia izango du hizpide azterketariak, ordu erdi lehenago adieraziko zaion ekintza komunikatiboa gauzatzeko aztertzaileen aurrean.

Laugarren maila egiaztatzeko izena ematen dutenek matrikula eta agiria ordaindu egin beharko dituzte, gainerako mailen egiaztatzeetan bezala (18 € matrikula eta 18,50 € agiria).